



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 30a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da adituen talde bat era dezan bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da obra publikoei buruzko inbertsio-politika birpentsa dezan eta urte anitzeko plan bat aurkez dezan. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua indargabetu dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irizpide eta arau berri batzuk ezar ditzan beken eta laguntzen deialdi orokorrean, ikasle guztientzako aukera-berdintasunaren eta ekitatearen printzipioak errespetatuko dituztenak. Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateen beharrezanean aurre egiteko behar adina diruz horni dezan Toki Azpiegiturei buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana. María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzari eskualda diezazkion enplegu arloko eskumenak eta, horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua Garapen Ekonomikoaren mende egotera igaro dadin. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Ekintza Globalaren Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

- Adierazpen instituzionala, irailaren 23an Sexu-esplotazioaren eta Pertsona-trafikoaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko tarte arriskutsuetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituen. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estrategiko bat bultza dezan, jaietan Iruñearen eta Nafarroaren irudia indartzeko eta hobetzeko. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatean dauden Cabanillasko bizilagunei informa diezaien Cabanillasen berriz erroldatzeko aukera daukatela. Osasun Batzordean izapidetzea (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Indiako sektore publikoko enpresen ordezkari batek Nafarroara egindako bisitaren balantzeari buruzkoa. Virginia Alemán Arrastio andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko irailaren 14ko epaiak Nafarroako aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuo lehendakaria bandera Guardia Zibilari Nafarroan emateko ekitaldira joan ez izanari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (16. or.).
- Galdera, amadun familia gurasobakarrentzako babes integraleko neurriei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren erabaki bati buruzkoa, Osasuneko zuzendari nagusiari Nafarroako Unibertsitatea Klinikarentzako diru-laguntza bat zuzenean emateko baimena ematen diona. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (18. or.).
- Galdera, mendekotasuna duten pertsonen balorazioa egiteko itxarote-zerrenda luzeak desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurri urgenteei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (18. or.).
- Galdera, hiri-planeamendua formatu digitalean eskuratu ahal izatea ahalbidetze aldera Nafarroako Gobernuak garatzen dituen edo garatu nahi dituen ekintzei buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako sexu-esplotazioaren eta prostituzioaren gaineko azterlanei buruzkoa. Ana San Martín Aniz andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako erkidego katolikoaren tenpluen eta sinboloen aurkako erasoei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroak eta Aragoiko eta Errioxako erkidegoek 2009an sinatutako protokolo orokorrak gaurkotze aldera erkidego horietako gobernuetako kideekin egindako bilerei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, familia-ingurune esku-hartzei, harrera-eskabide eta -ebazpenei eta familiendako laguntza-zerbitzuko saioei buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Administrazio langileei eta laneko gertakizunen, lan istripuen eta gaixotasun profesionalen aurrean duten aseguru- edo estaldura-araubideari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (23. or.).
- Galdera, 2. faseko (eskola-lantegi berrien kontratazioaren exekuzioa) kontratuen zenbatekoari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (23. or.).
- Galdera, prestakuntza- eta enplegu-programa integratuetako bekei buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, eskola-lantegi berrietako 2. faseko ikaskuntzari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (25. or.).
- Galdera, gizarteratze errenta jasotze aldera familiek itxaron behar izaten duten denborari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (25. or.).

- Galdera, ikasturtea ikastetxearen beharrianak asetzeko beharrezkoak diren irakasle eta lanpostu guztiekin hasi ez duten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, hertsiki beren udal-errola osatzen dutenei baino herritar gehiagori zerbitzuak emateagatik eta finantzatzeagatik zenbait udalek pairatu beharreko gainkostuari buruzko azterlan edo txosten bat egiteko aurreikuspenari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, AP-15ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengortze aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, legegintzaldi honen hasieratik abiarazi diren Gobernu Irekiaren ekintzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (28. or.).
- Galdera, Nafarroan merkataritza-enpresen eratzeari dagokionez 2015aren aldean joera negatiboak jarraitzeko arrazoiei buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (28. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da adituen talde bat era dezan bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita adituen talde bat era dezan bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarterko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarri-

takoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroan, egunero, pertsona batek edo bik izaten dute bihotz-gelditze bat. Halako kasuetan, Oinarrizko Bizi Euskarriko maniobrak eta desfibriladore erdiautomatiko bat lehenbiziko minutuetan eskura edukitzea giltzarri da pertsona horien bizi-raupenerako.

Desfibriladore bat eskueran azkar izateak eta profesionalak haren erabileran trebatzeak balio izan lezake bihotz-gelditzea izan duten pertsonen heriotza ekiditeko.

Mozio honen xedea da egoera horien azterketa sustatzea eta bat-bateko heriotza prebenitzeko estrategiak eta jarduketa-eredu bat sortzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du aditu-talde bat era dezan, bat-bateko heriotza prebenitzeko plan bat prestatzeko eginkizuna izanen duena.

Iruñean, 2016ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da obra publiko- ei buruzko inbertsio-politika birpentsa dezan eta urte anitzeko plan bat aurkez dezan.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita obra publiko-
koei buruzko inbertsio-politika birpentsa dezan eta urte anitzeko plan bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Berriki jakin dira Nafarroako obra publikoen lizitazioaren bilakaerari buruzko azken datuak: gure erkidegoa bigarrena da, nazio osoan, herri lanen lizitazioaren murrizketan. Eraikuntza-enpresa handiak biltzen dituen SEOPAN patronalaren arabera, aurtengo urtarriletik uztaile bitarte 18,73 milioi euro baino ez da lizitatu, 2015ean osotara lizitatu ziren 108,38 milioien aldean. Horrek esan nahi du, portzentajeetan adierazita, murrizketa % 82,7koa izan dela, bakarrik Kanariarretakoak gaintitzen duena, salbu eta, aukera gutxi badago ere, azken sei hileko honetan herri lan gehiago lizitatzen badi-ra.

Datu hori ezin okerragotzat hartu behar da, jarduera publikoa ekonomiaren trakzio-eragile gisa geldiarazi egin dela agertzen duen heinean, eta horrek guztiak ondorioa duelako bai herri lanetako toki-enpresetan bai haiek gero eta nekezago mantentzen duten enpleguan.

Aipatu datuak, halaber, egoera tamalgarri bat islatzen du: ondare publikoa hondatuz doa, zainketa faltagatik, eta ez da jarduketa berririk egiten urteen poderioz zaharkituta geratu dena berritzeko edo aldatzeko, aipatu ondareak biltzen dituen arlo guztietan: eraikinak, instalazioak eta errepedeak.

Horregatik guztiagatik eskatzen dut honako mozio hau Osoko Bilkuran onartzea eta izapidetzea:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Herri lanei buruzko inbertsio-politika birpentsa dezan, eta urte anitzeko inbertsio-plan bat aztertu eta heldu den urtean Legebiltzar honi aurkez diezaion, helburutzat harturik Nafarroako Foru Administrazioarako herri lanetarako inbertsioan hazkunde jarraitu bat lortzea, gure erkidegoko ondarea era egokiagoan zaintzeko eta hobetzeko kopuru arazoizko eta beharrezkoetara hurbilduta.

2. Herri lanetarako inbertsio-plan horretan, ahal den neurrian, zenbatekoen % 50 inguru bideratuta egon dadin ahalik eta jarduketa kopuru handiena garatzera, lurraldean zeharreko banaketa orekatu baten irizpidearekin, horrela tokiko enpresa txiki eta ertainetatik ahalik eta gehienak aurkez daitezen errazte aldera.

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua indargabetu dezan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua indargabetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Joan den abuztuaren 8an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak emana, zeinaren bidez baliorik gabe uzten baitziren martxoaren 4ko 37/2010, ekainaren 18ko 103/2010, abuztuaren 31ko 146/2010 eta irailaren 22ko 88/2014 foru aginduak.

2010ean eta 2014an onetsitako araudiaren xedea zen ezarritako hezkuntza curriculumak betetzea eta Nafarroaren errealitate instituzionala defendatzea.

Aipatu foru aginduek Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko zerbitzuen txosten tekniko batzuk izan zituzten oinarri. Txostenetan agerian geratzen da Nafarroako ikastetxe batzuetako zenbait testuliburuak edukiak ez zeudela egokituta Nafarroako Gobernuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako curriculumak garatzeko onetsi zuen araudian ezarritakora, ez eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikora ere.

Txosten teknikoek erabat argi uzten zuten bazi-rela testuliburu batzuk Nafarroari buruzko edukiak País Vasco/Euskal Herriaren testuinguruan sar-

tzen zituztenak, liburu batzuk toki-mailako eduki gehienak Euskal Autonomia Erkidegokoak zituztenak, eta liburu batzuk zeinetan ez ziren agertzen Nafarroari buruzko berariazko zenbait eduki garrantzitsu, kasuko foru dekretuek arautzen duten Nafarroari buruzko curriculumekoak direnak.

Araudia betetzen ezenez, foru aginduek ezartzen zuten, halaber, aipatu testuliburuak ez zirela finantzatu Nafarroako Gobernuak ezarritako doakotasun-programaren barrenean.

Onartezina da Nafarroako Gobernutik, administrazio publiko bat den heinean, indarririk gabe uztea araudi bat, helburu bakartzat duena Nafarroako prestakuntza zentroetan irakatsiko diren hezkuntza-edukiak bat etor daitezela Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate instituzionalarekin eta ezarri diren hezkuntza-curriculumekin.

Azkenik, oso kontuan hartu behar da 2010. urtean onetsitako araudia (martxoaren 4ko 37/2010 Foru Agindua) Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak berretsi egin zuela 2011ko maiatzaren 16ko epaiaren bidez. Epaiak ezetsi egin zuen testuliburu horiek argitaratzen zituzten bost argitaletxeetako bik aurkeztutako errekurtsioa, zeinek aitortu baitzuten liburu horietan ez zeudela jasota curriculumetan biltzen diren Nafarroari buruzko berariazko edukiak.

Argitaletxeen arabera Euskal Herria hitzak Konstituzioak betetzen zuen, errealitate politiko bati buruzkoa ez delako, baina Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, hitz hori erabiltzeari dagokionez, guztiz argi utzi zuen testuliburuak Nafarroako errealitatea desitxuratzen duten edukiak aurkezten zituztela, Euskal Herria hitza ez dela existitzen, eta nabarmen desitxuratzen duela errealitate faktikoa eta juridikoa, eta modu argi, nabari eta agerikoan urratzen direla Konstituzioa, Foru Hobetzea eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indarririk gabe utz dezan uztailaren 5eko 82/2016 Foru Agindua, Hezkuntzako kontseilariak emana, baliorik gabe uzten dituen Nafarroako hezkuntza- zein erakunde-legezkoa-

suna betetzea beste xederik ez duten foru agindu batzuk.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du jarraipenaren eta ikuska-penaren arloan duen erantzukizunari hel diezaion, halatan Nafarroako ikastetxeetan hezkuntza-erdiak (testuliburuen zein bestelako euskarrien

bitartezkoak) bat etor daitezten kasuan kasuko curriculumean ezarritako hezkuntza-araudiarekin, eta zain dezan Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate instituzionala.

Corellan, 2016ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da irizpide eta arau berri batzuk ezar ditzan beken eta laguntzen deialdi orokorrean, ikasle guztientzako aukera-berdintasunaren eta ekitatearen printzipioak errespetatuko dituztenak.

MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita irizpide eta arau berri batzuk ezar ditzan beken eta laguntzen deialdi orokorrean, ikasle guztientzako aukera-berdintasunaren eta ekitatearen printzipioak errespetatuko dituztenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Geroa Bai, EH Bildu, Podemos Ahal Dugu eta Izquierda Ezkerraren artean sinatutako programa-

akordioak ezartzen du ikuspegi sozialago batetik aldatzea beka-sistema, ikasle guztientzat irisgarri izan daitezten Administrazioak sustatzen dituen hezkuntza-jarduera eta zerbitzu osagarri guztiak.

Unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleendako beka eta laguntzen 2015/2016 ikasturterako deialdi orokorra arautu duten irizpide eta arauak kontraesanetan daude aipatu akordioan ezarritakoarekin.

2016/2017 ikasturterako beka-deialdi orokorrean inolako aldaketarik ez dela izan jakiteak sortu duen asaldura ikusita, parlamentu-talde honek honako erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du irizpide eta arau berri batzuk ezar ditzan beken eta laguntzen deialdi orokorrean, ikasle guztientzako aukera-berdintasunaren eta ekitatearen printzipioak errespetatuko dituztenak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du programa-akordioan ezarritakoa errespetatu dezan, beka-deialdi orokorrari dagokionez.

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan.

Haur eta gazteen osasun mentala lehen mailako kezka bat da mundu osoan prebentzio eta esku-hartze programak garatzen direnean. Osasunaren Mundu Erakundeak haur eta nerabeei eskaini zien 2003ko urriaren 10ean Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna. Helburua zen munduak arreta paratzea nahasmendu emozional eta jokabidearenak identifikatu, tratatu eta prebenitzeko zereginean; izan ere, litekeena da mundu osoko 0tik 17 urtera bitarteko biztanleen % 20 inguruk izatea nahasmendu hori.

Haurren Eskubideen Gutunak, zeina NBEk 1959an onetsi baitzuen eta Espainiako Parlamentuak 1990ean berretsi baitzuen, haurrari protagonistaren egitekoa esleitzen dio gizartean, eta aitortzen du beharrezkoak dituzten zaintza bereziak

emanez artatu behar direla haurrak (Haurren Eskubideen Gutunaren 4. eta 5. printzipioak). Haur eta Gazteentzako Osasun Mentaleko jarduketek osasun-plan orokorretan sartuta egon behar badute ere, arrakasta izanen badute, xede duten populazioaren berezko alderdi kualitatiboak jasoko dituen berriazko garapena izan behar dute.

Hurtzarroak eta nerabezarrok zentzu berekia dute, ezaugarri berezi batzuk dituzte helduen ezaugarriekin alderatuta, eta ezaugarri horiek aintzat hartu beharra dago, aro horietako garapenaren izaera ebolutiboa azpimarratuz; izan ere, inguruneak eragin handia daukan populazio bat dela ohartu beharra dago, zeinetan haurra biltzen duen ingurunearen faktoreak funtsezkoak baitira haren nahasmenduaren jatorria ulertzeko eta eraginkortasunez esku hartzeko. Jaiotzatik nerabezarora bitarteko aro ebolutiboek hainbat espezifikotasun dituzte, aro bakoitzean esku-hartze eta estrategia berezitu eta berekiak eskatzen dituztenak.

Horrek guztiak bere isla izan behar du haurrak eta gazteak artatzen dituen osasun mentaleko eki-poaren hautaketan eta prestakuntzan eta jardun klinikoan. Arloko espezialistak izan behar dute, ezagutza eta gaitasun bereziak behar direlako, helduen populazioa artatzeko behar direnen aldean. Halaber, behar-beharrezkoa da diziplinartekotasunez lan egitea haurraren bizitzaren esparru ezberdinetako profesionalekin.

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, Nafarroako Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren agiri teknikoa (2007koa) aintzat hartuta, berrantolatatu egin ziren haur- eta gazte-populazioaren osasun mentalaren arretarako baliabideak. Zerbitzu horiek 16 urtera bitarteko populazioari zuzendurik daude (Nafarroan, 2009an, 106.290 biztanle). Nahasmendu mentala dela-eta artatu beharreko 17 urteko pertsonak malgutasunez artatuak dira haur eta gazteen nahiz helduen baliabideekin.

Tuterako eta Lizarrako osasun-barrutietako 17 urtetik beheitiko pertsonak beren barrutiko osasun mentaleko zentroetan artatzen dituzte. Iruñeko osasun-barrutian, aldiz, oinarritzko osasun-laguntzak zuzenean bideratzen ditu gaixoak Sarrigurengo Haur eta Gazteentzako Osasun Mentaleko Zentroa, osasun mentaleko zentroetatik igaro gabe.

Tuterako osasun-barrutian 376 adingabe artatu zituzten 2015ean, eta Lizarrako osasun-barrutian, 286.

O-NOZen beraren datuek erakusten dutenez, 17 urtera bitarteko adingabeek gero eta gehiago eskatu dituzte azken urteotan osasun mentaleko zerbitzuak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako osasun-barrutietan, kasuko baliabide material eta giza baliabide espezializatuak eta programa egokiez hornituta.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta

sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan.

Teknologia berrien etorrerak eta normalizazioak aldaketa handia eta sakona ekarri du gizartearen arlo askotan; baita lan-harremanetan eta lana ulertzeko moduan ere.

Telelana –lanbide-zereginak urrutian egite bezala ulertuta, dela norberaren etxean, dela beste edozein lekutan– gure herriaren lan-normaltasunean apurka-apurka barneratzen ari den aukera bat da. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, enpresen % 27k dauka telelan-plan bat; Erresuma Batuan edo Alemanian, berriz, % 35 dira halako plan bat daukatenak.

Nafarroako Foru Komunitateko enpresa pribatuei buruzko datu zehatzik ez daukagun arren, agerikoa da administrazioak ez duela telelana sustatzeko asmoz jarduten, beste erkidego batzuetan ez bezala, non lan-modalitate hori errazten saiatzen baitira. Euskal Autonomia Erkidegoan maiatzaren 29ko 92/2012 Dekretua daukate, zeinaren bidez onartu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako enplegatu publikoek zerbitzua telelanaren bidez modalitate ez-presentzialean nola eman arautuko duen akordioa (2012ko ekainaren 7ko EHAA), eta beste horrenbeste Balearretan, Valentzian, Errioxan, Extremaduran, Galizian, Gaztela eta Leonen edo Galizian.

Teledan, enplegatu bakoitzaren askatasunaren barruan, abantaila handiak izan ditzake. Alde batetik, familia eta lana bateragarri egitea, efizientzia areagotuz, joan-etorrietako denbora aurreztuz eta joan-etorriak ibilgailu motorduneginez gero isuri kutsagarriak murriztuz. Halaber, urrutitik lan egiteak arazo fisikoak dituzten pertsonen lan-merkatuan sartzeko aukera ematen die, eta landa eremuetako biztanleei –urrun-urrun egonagatik ere– are kualifikazio ertain edo handikoak diren lanpostuetarako sarbidea ematen die.

Enpresari dagokionez, bere bulegoetatik urrun dagoen inguru batean zenbait langile edukitzeak kostua eta espazioa aurrezteak dakar, eta bere langileen lehiakortasun eta gogobetetasun handiagora lortzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du:

1. Nafarroan teledana babestu eta erraztu dezan; hartara, 2016tik 2019ra bitarteko enplegu planean gai honi buruzko berariazko atal bat jasoko da, Nafarroan teledana hazten laguntzeko neurriekin.

2. Nafarroako Administrazio Publikoaren lan publikoaren arloan teledana sustatzeko programa bat gara dezan.

3. Parte-hartze eta lankidetzaren prozesu bat abiaraz dezan ukitutako eragileekin eta pertsonekin, helburuak eta beharrezkoak ezartzeko.

4. Langileei pizgarriak ematea teledana hauta dezaten; esate baterako, zergetatik arintzea lanearako darabilten tokitik heldutako gastuak –konexibitatea edo argindarra–, edo parte-hartze fasearen ondorioz sor litezkeen beste neurri batzuk.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiazten da toki entitateen beharrezkoen aurre egiteko behar adina diruz horni dezan Toki Azpiegiturari buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiazten baita toki entitateen beharrezkoen aurre egiteko behar adina diruz horni dezan Toki Azpiegiturari buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita

dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Toki azpiegituren planen helburu nagusia da bermatzea nahitaezko udal zerbitzuak Foru Komunitate osoan ematen direla. Plan horiei esleitutako baliabideak heldu dira udalei Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen arabera legez dagozkien funtsetatik.

Toki azpiegiturari buruzko aurreko plana bukatutzat emanda, Nafarroako Gobernuak 2017-2019 aldirako plan berriaren foru lege aurreproiektua taxutu du.

Plan berriak bateragarri egin beharko ditu, batetik, nahitaezko udal zerbitzuen estaldura, hobekuntza eta kalitatea modu orekatuan bermatzen jarraitzearen helburu nagusia eta, bestetik, kasu egitea toki entitateek eginiko eskakizunei, nahitaezkoak ez diren udal eskumeneko inbertsio batzuk gauzatu ahal izateko, lehentasunezkoztat jotzen badira tokian tokiko herritarren aurrerapen

eta ongizaterako. Horretarako, beharrezkoa da planak beharizan horiei erantzuteko behar adinako aurrekontu-zuzkidura izatea.

Toki entitateek funtsezko zeregina dute Nafarroaren egituraketan, eta toki azpiegituren planean jasotako jarduketan gisakoek berealdiko garrantzia dute Nafarroa osoko herrietako biztanleek modua izan dezaten bizi diren lekuetan oinarritzko zerbitzuak baliatzen jarraitzeko. Ezin dugu ahaztu, halaber, planek eragina daukatela jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeari begira.

Horregatik guztiagatik, kontuan hartuta toki azpiegituren planak garrantzitsuak direla toki entitateentzat, UPNren parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du toki entitateen beharizanei aurre egiteko behar adina diruz horni dezan Toki Azpiegiturei buruzko 2017tik 2019ra bitarteko Plana.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzari eskualda diezazkion enplegu arloko eskumenak eta, horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua Garapen Ekonomikoaren mende egotera igaro dadin.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzari eskualda diezazkion enplegu arloko eskumenak eta, horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzua Garapen Ekonomikoaren mende egotera igaro dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana María Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan erabaki zuen Eskubide Sozialetako Departamentuan sartzeko enplegu politikak. Departamentu horrek eskumen gehiegi dauka berez, eta munta handikoak; esate baterako, behartsuenentzako arreta, familientzako arreta, haurrentzako eta nerabeentzako arreta, gizarteratze errenta, eta abar.

Lehendakariaren abuztuaren 10eko 23/2015 Foru Dekretuaren arabera, honako hauek dira Eskubide Sozialetako lehendakariordetzaren eskumenak:

- Gizarte gaiak, familia, haur eta nerabeentzako arreta.
- Pertsonen autonomiaren sustapena.
- Hirugarren adinekoen eta desgaitasunak dituztenen beharretarako laguntza.
- Gizarteratze-lana.
- Immigrazio politiken koordinazioa.
- Garapenerako nazioarteko lankidetzak eta ekintza humanitarioak.
- Etxebizitza eskuratzeko aukerak erraztea; eraikuntzen kalitatearen kontrola eta sustapena; etxebizitzak egiteko lurzoruen merkatuan esku hartzea.

– Egoera sozialaren, aldaketa prozesuen eta problema sozialen azterketa.

Eta, gainera, enplegua sortzeko politika aktiboa sustatzea eta bitartekaritza lana lan-eskaintzaren eta lan-eskariaren artean.

Horren ondorioz, enplegua –CISen arabera, hori da nafarrak gehien kezkatzen dituen arazoabigarren toki batera igaro da departamentuaren barruan, ez zaio behar duen arreta guztia ematen eta urtebete baino gehiago behar izan da enplegu planaren zirriborroa aurkezteko; horrenbestez, Espainiako beste erkidego batzuetan baino guxtiago jaitsi da langabezia Nafarroan.

Enplegu planaren zirriborro hori, bestalde, Laparra lehendakariordeak eta Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik aurkeztu zuten, eta horrek erakusten du Gobernuaren ustez ere enplegu arloko eskumenak Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagozkiola Eskubide Sozialetako Departamentuari baino gehiago; izan ere, ezin baita ahaztu lanpostuak sortzen dituztenak ez direla gobernuak edo administrazioak, baikik eta enpresak; hortaz, Nafarroako Enplegu

Zerbitzua horiekin koordinatuta egon beharko litzateke, enplegu-sorrera hori sustatzeko neurriak ezartzeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzara eraman ditzan enpleguari buruzko eskumenak (enplegua sortzeko politika aktiboen sustapena, informazioa, orientazioa, prestakuntza, lan-arloko lagun egitea, laneratzea, eta enplegu-eskaintzaren eta -eskariaren arteko bitartekaritza).

2. Lehen puntuaren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren atxikipena alda dezan eta erakunde autonomo hori Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetzaren mende egotera igaro dadin.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ana María Beltrán Villalba

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Ekintza Globalaren Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Ekintza Globalaren Egunarekin; hartara, egun hori ospatuko du, eta berresten du emakumeek beren amatasunari buruz hautatzeko askatasunarekiko konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du komeni dela Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko 2/2010 Lege Organikoa 2010ean onetsi zen bezala berreskuratzea.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du 2010eko legeak jasotzen duen sexu- eta ugalketa-osasuna sustatzeko estrategia garatu beharra dagoela; izan ere, indarrean egon arren, de facto bertan behera utzi da.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Osasun Departamentuak taxututako sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretu osoaren abiarazpena azkartzearen alde dagoela.”

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, irailaren 23an Sexu-esplotazioaren eta Pertsona-trafikoaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere konpromisoa dela salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen defentsaren alde borrokatzea eta Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legeko 19. artikulua betearaztea.

2. Nafarroako Parlamentuaren uste sendoa da salerosketarik, prostituziorik eta indarkeria matxistarik gabeko mundu bat lortzearekin amets egin daitekeela.

3. Nafarroako Parlamentuak prostituzioaren eta genero-indarkeriaren normalizazioarekin amaiaraziko duten ekintza guztiekiko bere konpromisoa berresten du.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuia premiatzen du sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-salerosketaren aurkako lege integral bat onetsi dezan, prebentziorako tresna egokiak ezarriko dituen, delituaren ofiziozko

jazarpena indartuko duena, eduki sexualeko publizitatea ekidinen duena, ustiatutako pertsonen gizarte-babeseke eta oneratzeko integralko zerbitzuak eta programak abian jarriko duena eta azpimarra biktimen zentroan jarriko duena: emakume txirotuak, gerratik ihesi doazenak, herrialde “aberatsetan” trafikoaren biktima diren neska-mutikoak.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du akordio global bat lortu beharra dagoela, akordio horrekin bat egiten duten herrialde guztien artean koordinatuki eta eraginkorki jazartzeko sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-salerosketaren gaitz erdeinagarriari.

6. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten jarraitzen du berdintasunaren, justizia sozialaren eta bakearen zumitzez egindako gizarte baten alde, eta hortik heldu da salerosketa eta prostituzioa desagerraraztearen aldeko bere konpromisoa.”

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko tarte arriskutsuetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituen.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita urgentziaz egin dezan jarduketa-plan bat, N-121-A errepideko

tarte arriskutsuetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak bilduko dituen. Mozioa 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan estratēgiko bat bultza dezan, jaietan Iruñearen eta Nafarroaren irudia indartzeko eta hobetzeko.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan estratēgiko bat bultza dezan, jaietan Iruñearen eta

Nafarroaren irudia indartzeko eta hobetzeko. Mozioa 2016ko irailaren 8ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatean dauden Cabanillasko bizilagunei informa diezaien Cabanillasen berriz erroldatzeko aukera daukatela.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitatean dauden Cabanillasko

bizilagunei informa diezaien Cabanillasen berriz erroldatzeko aukera daukatela. Mozioa 2016ko irailaren 8ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Indiako sektore publikoko enpresen ordezkari batek Nafarroara egindako bisitaren balantzeari buruzkoa.*VIRGINIA ALEMÁN ARRASTIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Virginia Alemán Arrastio andreak aurkeztutako galdera, Indiako sektore publikoko enpresen ordezkari batek Nafarroara egindako bisitaren balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Virginia Alemán andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Garapen Ekonomikorako

kontseilari Manu Ayerdi jaunak batzordean erantzun dezan:

Haize-energiaren sektoreko Indiako enpresa nagusien ordezkari batek Nafarroara egindako bisitaren berri izan dugu. Merkataritza-misio horren helburua zen Nafarroako haize-energiaren sektorearen potentziala aurkeztea eta bi lurraldeetako enpresen eta ezagutza-zentroen arteko merkataritza-lankidetzarako eta garapen teknologikorako aukerak aztertzea. Ordezkaritza horrekin izandako bileraren ostean, Foru Gobernuak Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdi adierazi zuen Nafarroarentzat "berealdiko aukerak" ekar ditzakeela munduko zazpigarren ekonomiko sozietateekiko lankidetzak.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zer balantze egiten duzu haize-energiaren sektoreko Indiako enpresa nagusien ordezkari batek Nafarroara egindako bisita hori dela-eta?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Virginia Aleman Arrastio

Galdera, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko irailaren 14ko epaiak Nafarroako aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko irailaren 14ko epaiak Nafarroako aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Bitarteko langileen kontratuei dagokienez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak oraindik orain deklaratu du, 2016ko irailaren 14ko epaiaren bidez, Espainiako araudiak esparru-akordioa urratzen duela, baimendu egiten baitu iraupen jakin bateko izendapenak berritzea beharrian iraunkor eta egonkorrak betetzeko, nahiz eta egiturazko defizit bat egon langile finkoen lanpostuei dagokienez.

Horrek esan nahi du aukera dagoela beren kontratua azken egunotan bukatu duten bitarteko langileek –bereziki, Nafarroako Administrazio Publikoan– kalte-ordain bat eskatu ahal izan dezaten irazpena dela-eta, lan-kontratu mugagabea duten langileei aitortzen zaien modu berean.

Epai horrek eta bitarteko langileen balizko erreklamazio-segidak zer eragin izan dezakete Nafarroako aurrekontuetan? Nafarroako Gobernuak epai hori aplikatzeko asmorik ba al du, hemendik aurrera gertatzen diren bitarteko langileen kontratu-bukaeretan?

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria bandera Guardia Zibilari Nafarroan emateko ekitaldira joan ez izanari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria bandera Guardia Zibilari

Nafarroan emateko ekitaldira joan ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana María Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Legeko 3. artikulua araberan, Nafarroako Gobernuako lehendakaria Foru Komunitatearen ordezkari gorena da,

baita Estatuak Nafarroan duen ordezkari arrunta ere.

Hori dela eta, honako galdera hau egiten dugu:

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria zaren aldetik nafar guztien ordezkaria zaren hori zergatik ez zinen joan, hala badagokizu ere, Guardia Zibilarri Nafarroan bandera emateko ekitaldira, zeinetara joan baitziren Espainiako Gobernuako ministro bat nahiz beste agintari zibil, militar eta erlijioso batzuk?

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ana María Beltrán Villalba

Galdera, amadun familia gurasobakarrentzako babes integraleko neurriei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, amadun familia gurasobakarrentzako babes integraleko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako lehendakariordeak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer neurri hartu dira 2015eko irailetik gaur arte amadun familia gurasobakarrei babes integrala emateko? Zeintzuk dira 2017rako aurreikusitakoak? Zenbateko koordinazioa izan da departamentuen artean, amadun familia gurasobakarrei laguntzeko diziplinarteko plan bat taxutzeari dagokionez?

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako Gobernuaren erabaki bati buruzkoa, Osasuneko zuzendari nagusiari Nafarroako Unibertsitatea Klinikarentzako diru-laguntza bat zuzenean emateko baimena ematen diona.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren erabaki bati buruzkoa, Osasuneko zuzendari nagusiari Nafarroako Unibertsitatea Klinikarentzako diru-laguntza bat zuzenean emateko baimena ematen diona.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren 2016ko abuztuaren 24ko erabaki baten bidez, Osasuneko zuzendari nagusiari baimena eman zitzaion Nafarroako Unibertsitatea Klinikarentzako diru-laguntza bat zuzenean emateko, obstetriziako eta ginekologiako erizaintzako espezialistak prestatze aldera, bai eta kasuko hitzarmenaren finantzaketarako gastukonpromiso urteaniztuna hartzeko ere.

Zer arrazoi egon da hitzarmen hori sinatzeko? Izaera urteanizta al du? Zenbatekoa da kontusaila? Nolako zerikusia du ATS/DUE eskola publikoarekin?

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, mendekotasuna duten pertsonen balorazioa egiteko itxarotzerrenda luzeak desagerrarazte aldera Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurri urgenteei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, mendekotasuna duten pertsonen balorazioa egiteko itxarotzerrenda luzeak desagerrarazte aldera Nafarroako

Gobernuak ezarriko dituen neurri urgenteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Nuria Medina Santosek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Eskubide Sozialetako Departamentuaren beraren datuen arabera, une honetan 1.786 pertsona daude gure erkidegoan mendekotasunaren balorazioa egiteko itzarote-zerrendan, eta 900 gehiago, berriz, dagokien laguntza eskuratu ahal izateko balorazio ekonomikoaren zain.

Gainera, iturri horren beraren arabera, behin eta berriro urratuak izaten ari dira gizarte zerbitzuen zorroan ezarritako epeak, balorazio horiek egitekoak.

Datu horiek ikusita, hauxe da gure galdera:

Nafarroako Gobernuak zer neurri urgente ezarriko ditu mendekotasuna daukaten pertsonen balorazioa egiteko itzarote-zerrenda luzeak desagerrarazteko?

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, hiri-planeamendua formatu digitalean eskuratu ahal izatea ahalbidetze aldera Nafarroako Gobernuak garatzen dituen edo garatu nahi dituen ekintzei buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, hiri-planeamendua formatu digitalean eskuratu ahal izatea ahalbidetze aldera Nafarroako Gobernuak garatzen dituen edo garatu nahi dituen ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

sarbidea eskainiko baitu hirigintza-plan orokor eta garapen-plan guztietara —behar bezala georreferentziatuak eta metadatuekin— eta behin betikoz onetsiak diren eta indarrean dauden haien aldaketetara.

Bestalde, heldu den urriaren 2an indarrean sartuko den Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean planteatzen da administrazio publikoak zenbait neurriren bidez errotik aldatzea; izan ere, paperezko artxiboak erabiltzeari utziko diote, eta horien ordez baliokide elektronikoa erabiliko da.

Bi inguruabar horiek ikusita, honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan, goian azaldutako gaiaren honako alderdiei buruzkoa:

- Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen erronka horiei aurre egiteko?

- Etorkizunean zer urrats egin nahi dira lehen aipatutako betekizunak lortzeko?

- Zer baliabide ekonomiko gaitu behar dira oraindik ere, xedapen horiek betetzeko?

- Noizko egonen dira gaituta zerbitzu horiek?

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Hipoteka Legea eta Katastro Legea aldatzeko 13/2015 Legeak ezartzen du udalek jabetza-erregistroetarako sarbide ireki bat eduki beharko dutela, web-mapen zerbitzuaren bidezkoa, zeinak

Galdera, Nafarroako sexu-esplotazioaren eta prostituzioaren gaineko azterlanei buruzkoa.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako sexu-esplotazioaren eta prostituzioaren gaineko azterlanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Ana San Martín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zertan dira Legebiltzarraren Osoko Bilkurak abenduaren 10ean eskatutako azterlanak, Nafarroako sexu-esplotazioaren eta prostituzioaren gainekoak?

Iruñean, 2016ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Ana San Martín

Galdera, Nafarroako erkidego katolikoaren tenpluen eta sinboloen aurkako erasoei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako erkidego katolikoaren tenpluen eta sinboloen aurkako erasoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia

dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

2015eko udazkenetik 2016ko uda bukatu bitarte gutxienez ere zortzi eraso gertatu dira Nafarroan erkidego katolikoaren tenpluen eta sinboloen aurka.

– Nafarroako Gobernua harremanetan jarri al da erkidego horren ordezkariekin bere babesa adierazteko?

– Tolerantzia sustatzeko neurri zehatzik ba al darabil gogoan?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Nafarroak eta Aragoiko eta Errioxako erkidegoek 2009an sinatutako protokolo orokorrak gaurkotze aldera erkidego horietako gobernuetako kideekin egindako bilerei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak eta Aragoiko eta Errioxako erkidegoek 2009an sinatutako protokolo orokorrak gaurkotze aldera erkidego horietako gobernuetako kideekin egindako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Hedabideetan eta Nafarroako Gobernuaren web orrian bertan argitaratutako albisteen arabera, Gobernuak adierazi zuen, Aragoiko eta Errioxako gobernuetako kideekin maiatzean egindako bileretan, bere nahia zela Nafarroak eta erkidego horiek beren administrazioen arteko lankidetzan sakontze aldera 2009an sinatutako protokolo orokorrak gaurkotzea.

– Asmorik al dago protokolo berrietan klausularik sartzeko, errenta bermatuari, garapenerako lankidetzari, etxebizitzari, errealitate sozialaren gaineko azterlan eta adierazleei, aniztasunaren arretari, bizikidetasun eta giza eskubideei, gazteriaren behatokiei, lanbide heziketari, espezializazio adimentsuko estrategiari eta garapen ekonomikoko faktoreei buruz, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoarekin orain dela gutxi sinatutako protokolo orokorrean sartutako eta Aragoirekin eta Errioxarekin indarrean diren protokoloetan sartu gabeko arloei buruz?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, familia-ingurune esku-hartzei, harrera-eskabide eta -ebazpenei eta familiendako laguntza-zerbitzuko saioei buruzkoa.

MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, familia-ingurune esku-hartzei, harrera-eskabide eta -ebazpenei eta familiendako laguntza-zerbitzuko saioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat esku-hartze egin dira familia-ingurunean, zein izan da 2014-2015 urteetako bilakaera,

eta zein da familietan aldi berean hilero egindakoen batez bestekoa?

– Zenbat eskabide eta zenbat ebazpen bideratu dira familia-harrerara? Zenbat, harrera espezializatura? Bi horiek 2014-2015ean izandako bilakaera.

– Zenbat igo dira familiari laguntzeko zerbitzuko (familia-bitartekaritza eta -orientazioa) saioak?

Iruñean, 2016ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituen prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei

buruzko honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

UPN parlamentu-taldeak eskatuta, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak agerraldia egin zuen irailaren 13an, enplegurako lantegi-eskolei buruz hitz egiteko, eta adierazi zuen Nafarroako Gobernuak prestakuntza- eta enplegu-programak sustatuko zituela.

– Enplegurako lantegi-eskolez gain, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak zer beste programa kudeatzen du, prestakuntza eta enplegua uztartzen dituen (baita praktikak bekekin eta ez kontratuekin uztartzen dituztenak ere)?

– Zer kontusailetan jasotzen da horietako bakoitza? Zer aurrekontu dauka 2016an programa horietako bakoitzak? Zein da horien betetze-maila?

– Beste horrenbeste 2015erako; ekitaldi horri dagokionez, programa horien onuradunen kopurua ere jakin nahi dut.

Iruñean, 2016ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Nafarroako Foru Administrazioako langileei eta laneko gertakizunen, lan istripuen eta gaixotasun profesionalen aurrean duten aseguru-edo estaldura-araubideari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Administrazioako langileei eta laneko gertakizunen, lan istripuen eta gaixotasun profesionalen aurrean duten aseguru- edo estaldura-araubideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio

Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

1. Zenbat dira gaur egun Nafarroako Foru Administrazioako langileak ondoko entitate haue-tan, laneko gertakizun, lan istripu eta lanbide-gaixotasunak aseguratzeke edo estaltzeko araubide-aren arabera?

– GS (Gizarte Segurantzza)

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala
- MATEPSS (Gizarte Segurantzako lan istripuen eta lanbide gaixotasunen mutua)
- Gobernua bera, Gizarte Segurantzaren entitate lankide gisa eraturia

– MUFACE mutualitatea

– MUGEJU (Justiziako Mutualitate Orokorra)

2. Aurreko galderan aipatzen den estaldura mota bakoitzerako guztizko kotizazioek eta laneko kontingentziaren arabera zer zenbateko ekonomiko egin dute 2015ean (eurotan)?

Iruñean, 2016ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 2. faseko (eskola-lantegi berrien kontratazioaren exekuzioa) kontratuen zenbatekoari buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, 2. faseko (eskola-lantegi berrien kontratazioaren exekuzioa) kontratuen zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei buruzko honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

UPN parlamentu-taldeak eskatuta, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak agerraldia egin zuen irailaren 13an, enplegurako lantegi-eskolei buruz hitz egiteko, eta adierazi zuen prestakuntza-

eta enplegu-programak sustatuko zituela Nafarroako Gobernuak.

Zehazki, eskola-lantegi berrien ezaugarriei dagokienez, 2. fasea dela-eta –"Kontratazioaren exekuzioa" (9-18 hilabete)– dio "ikaskuntzaren % 75 lan-ingurune errealean. Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua".

– Zein izanen da da kontratu horien zenbatekoa?

– Zer iraupen izanen dute?

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, prestakuntza- eta enplegu-programa integratuetako bekei buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, prestakuntza- eta enplegu-programa integratuetako bekei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei buruzko honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

UPN parlamentu-taldeak eskatuta, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak agerraldia egin zuen irailaren 13an enplegurako lantegi-eskolei buruz hitz egiteko, eta adierazi zuen prestakuntza- eta enplegu-programak sustatuko zituela Nafarroako Gobernuak.

Zehazki, prestakuntza- eta enplegu-programa integratuetan –1. fasean, "Harrera eta Orientazioa" (15 egun-2 hilabete), eta 2. fasean, "Exekuzioa eta Prestakuntza" (400-750 ordu)–, beka ordaintzea aurreikusten da.

– Zertan gauzatuko dira beka horiek?

– Zein izanen da beka horien zenbatekoa?

– Zer alde dago beka horien eta langabetuentzako prestakuntzarako deialdiko prestakuntzaketan ordaintzen direnen artean?

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, eskola-lantegi berrietako 2. faseko ikaskuntzari buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, eskola-lantegi berrietako 2. faseko ikaskuntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, prestakuntza- eta enplegu-programa mistoei buruzko honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

UPN parlamentu-taldeak eskatuta, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak agerraldia egin zuen irailaren 13an, enplegurako lantegi-eskolei buruz hitz egiteko. Agerraldian adierazi zuen Nafarroako Gobernuak prestakuntza- eta enplegu-programak sustatuko zituela.

Zehazki, eskola-lantegi berrien ezaugarriei dagokienez, 2. fasea dela-eta dio –"Kontratazioaren exekuzioa" (9-18 hilabete)– "ikaskuntzaren % 75" eginen dela lan-ingurune errealean.

– Zertan gauzatuko da ikaskuntza hori?

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, gizarteratze errenta jasotze aldera familiek itxaron behar duten izaten denborari buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, gizarteratze errenta jasotze aldera familiek itxaron behar izaten duten denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gizarteratze errentari buruzko honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Familiek zenbat denbora itxaron behar izaten dute gaur egun, gizarteratze errenta jasotzeko?

Iruñean, 2016ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, ikasturtea ikastetxearen beharrianak asetzeko beharrezkoak diren irakasle eta lanpostu guztiekin hasi ez duten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikasturtea ikastetxearen beharrianak asetzeko beharrezkoak diren irakasle eta lanpostu guztiekin hasi ez duten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxe publikok zergatik ez dute hasi ikasturtea ikastetxearen beharrianak asetzeko beharrezkoak diren irakasle eta lanpostu guztiekin?

Zer ikastetxek ez dute ikasturtea beren plantilla osoarekin hasi? Zehaztu, ikastetxez ikastetxe, profesional-kopurua eta betetzen duten lanpostua.

Ikastetxe horietako zenbatek ez dute eduki profesional titularrak ordezkatu behar zuten irakaslerik edo langilerik? Zehaztu profesional-kopurua ikastetxez ikastetxe.

Zer ikastetxek jarraitzen zuten, irailaren 10ean, plantilla osoa eduki gabe? Zehaztu profesional-kopurua eta lanpostua, ikastetxez ikastetxe.

Zer ikastetxek jarraitzen zuten, irailaren 15ean, plantilla osoa eduki gabe? Zehaztu profesional-kopurua eta lanpostua, ikastetxez ikastetxe.

Zer ikastetxek jarraitzen zuten, irailaren 20an, plantilla osoa eduki gabe? Zehaztu profesional-kopurua eta lanpostua, ikastetxez ikastetxe.

Ikasturte-hasieran gorabeherarik izan al da hezkuntza bereziko ikastetxeetan?

Corellan, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, hertsiki beren udal-errola osatzen dutenei baino herritar gehiagori zerbitzuak emateagatik eta finantzatzeagatik zenbait udalek pairatu beharreko gainkostuari buruzko azterlan edo txosten bat egiteko aurreikuspenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, hertsiki beren udal-errola osatzen dutenei baino herritar gehiagori zerbitzuak emateagatik eta finantzatzeagatik zenbait udalek pairatu beharreko gainkostuari buruzko azterlan edo txosten bat egiteko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Udal autonomiak eta udalen finantza-askitasunak erronka izaten jarraitzen dute oraindik ere Nafarroan; hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak jada adierazi du herritarrengandik gertuen dauden erakundearen arrazionalizazioaren eta sendotzearen esparruan jarduteko borondatea eta erabakitasuna daukela.

Horri dagokionez, parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak baduen edo eginen duen azterlanik edo txostenik, zenbait udalek hertsiki beren udal-errola osatzen dutenei baino herritar gehiagori zerbitzuak emateagatik eta finantzatzeagatik pairatu behar izaten duten gainkostuari buruzkorik.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, AP-15ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengoratzeko aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, AP-15ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengoratzeko aldera Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

AP-15ean –Tafallako udal-mugartean– abuztuaren 25ean hasitako sutearen ondorioak arintze aldera eta suteak kaltetutako eremuak lehengortze aldera Nafarroako Gobernuak asmotan dituen neurriei eta jarduketan planifikazioari buruzkoa.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, legegintzaldi honen hasieratik abiarazi diren Gobernu Irekiaren ekintzei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera legegintzaldi honen hasieratik abiarazi diren

Gobernu Irekiaren ekintzei buruzkoa zen, eta 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroan merkataritza-enpresen eratzeari dagokionez 2015aren aldean joera negatiboak jarraitzeko arrazoiei buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera, Nafarroan merkataritza-enpresen eratzeari dagokionez

2015aren aldean joera negatiboak jarraitzeko arrazoiei buruzkoa. Mozioa 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza